

JOLAS MATEMATIKOAK

J.M. GOÑI eta J. ETXEBERRIA

Has gaitezen azken zenbakian proposatutako problemari erantzuna emanaz. Horretarako eta artikulua-
ren bukaeran esaten genuen bezala karramaroaren antzera atzera ibiltzea dugu jokabiderik emankorrena.

○

Irudian agertzen den posizioraino eraman behar dugu pieza bat

Jokaldietan bi erregela errespetatuko behar dira:

- Hasieran fitxa guztiek marra lodi horren behekaldean egon beharko dute.
- Fitxa bat jan ahal izateko gaineretik pasa beharra dago, pasatze hau bai horizontalki ala bertikalki egin daiteke, baina ez diagonalari jarraituz. Gaineretik pasa ahal izateko fitxek elkarren ondoan egon beharko dute.

Problema ebazteko bukaeratik abiatuko gara ondoko galdera honi erantzunez: zein izango da lortu nahi

dugun horren aurreneko posizioa?
Hona erantzu (ez da bakarra)

○
○

eta horren aurrenekoa?

○

○
○

eta honen aurrenekoa?

○

○ ○
○

galdera bera errepikatuz

○

○ ○ ○
○

○ ○

○ ○ ○
○

○

○ ○ ○ ○
○ ○



Horra hor guk aurkitutako erantzuna ea zuetako batek beste laburragoren bat asmatzen duen!

Ale honen barnean proposatzen dizuegun problema zera da: **IGELA JAUZKARIA MARRA LODIA-**

REN LAUGARREN ERRENKADAN UZTEA. Saia zaitetze ahalik eta pieza gutxien erabiliz hasieran. Hauxe duzue bururako aerobik ederra!



**EZ GELDITU
AZALEAN
ZATOZ MUINERA**

**ELHUYAR. ZIENTZIA ETA
TEKNIKA**
bi hilabetean behin zure
eskutan